

Adingabeek Vitoria - Gasteizko kaleetan barrena segurtasunez eta autonomiaz mugitzeko eskubidea eta premia dutela aintzat hartuta,

Eta aintzat hartuta, halaber, herritar guztiek beren hiri - ingurunearen diseinuan, bizigarritasunean, segurtasunean eta egokitzapenean inplikatu beharra dutela, guztiok ere eremu hori berreskuratzeko eta espazio publikoa baliatzeko aukera izan dezagun,

ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUGUN IKASTETXEOK, VITORIA - GASTEIZKO UDALAK ETA EUSKO JAURLARITZAK HONAKO KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITUGU:

Ikastetxeetarako mugikortasun motorizatuak ekonomian, gizartean, ingurumenean eta lurraldean eragiten dituen inpaktuei buruzko gogoeta kolektiboa bultzatzea, eskola - mugikortasunaren kultura berri bat sortzeko Vitoria - Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren esparruan.

Ikastetxeetara joateko modu osasungarri eta autonomoak hautatzen dituzten ikasleen kopurua handitzea, joan - etorri motorizatuen kopurua murrizteko, eta, horrela, hezkuntza - komunitate osoarentzat mugikortasun iraunkorragoa, seguruagoa eta osasungarriagoa sustatzeko.

Mugikortasun - kultura berri hori ikastetxeko curriculum proiektuetan sar dadila bultzatzea, urteek aurrera egin ahala jarraipena eta hobekuntza izan dezan, ikasleen osasuna, segurtasuna eta autonomia bermatuz eskola - jardueran.

Gizarte - aldaketak dakartzaten proiektuen komunikazio - ekintzak garatzea, hezkuntza partekatua ahalbidetzeko eta herritarrek hezkuntza - komunitatearen aldeko konpromisoa har dezatela sustatzeko.

Inplikaturako gizarte - aktore eta - agente guztien (irakasleak, ikasleak, familiak, eskumeneko administrazioak, gizarte - ingurunea eta abar) parte - hartzea ziurtatzea, manifestu honetan proposaturako ekintzak bete eta garatzeko beharrezko lankidetzeta eta inplikazioa sustatzeko.

HORRELA BADA, GAUR, ASTEAZKENA, 2015eko IRAILAREN 22a, "HIRIA, NIRE AUTORIK GABE" IZENEKO EGUN EUROPARRA IZANIK, ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUGUN IKASTETXEOK, VITORIA - GASTEIZKO UDALAK ETA EUSKO JAURLARITZAK KONPROMISO HAU HARTU NAHI DUGU VITORIA - GASTEIZ ERREFERENTZIAZKO HIRIA IZAN DADIN IKASLEEN ETA IKASLEENTZAKO MUGIKORTASUN IRAUNKOR ETA AUTONOMOAREN ALORREAN.